



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2024/02/08



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus
NIF: P3115200B

IDAZKARITZA / SECRETARIA

ALKATEAREN EBAZPENA, DEIALDIA ONESTEN DUENA GEROKULTORE LANPOSTU HUTSAK MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZ LEKUALDATZEAREN BITARTEZ BETETZEKO.

Alkatearen 216/2022 Ebazpenaren bidez (2022ko 103. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, maiatzaren 26koa; urriaren 31ko 509/2022 Ebazpenak aldatua –2022ko 228. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, azaroaren 17koa–) onetsi da 2022rako lan publikoaren eskaintza, ezartzen dituen enplegua egonkortzeko prozesuak eta deialdi bereziak, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legeari jarraikiz.

Osoko Bilkuran 2022ko azaroaren 16an hartutako erabaki baten bidez, toki erakunde hau partez atxikitzen zaio uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen II. tituluan jasotako erregulazioari (foru lege horren bidez neurriak hartzen dira egonkortze-prozesuak gauzatzeko, Nafarroako Administrazio Publikoetan, Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz).

Aipatutako 19/2022 Foru Legearen 10. Artikuluak hauxe dio:
-1. puntua: “1. Enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartutako lanpostuak barne-mugikortasuneko prozedura batean eskainiko dira, lekualdatze-lehiaketa bidez, eta hartan parte hartzen ahalko dute deialdiaren xedeko lanpostu berean izendapena duten enplegatu finkoek”

-7. puntua: “Lanpostuak lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko prozeduren ebazpena formalizatuko da egonkortze prozeduretan lanpostuak esleitu aurretik.”

Ondorioz, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT:

- 1.) Deialdia onestea merezimendu-lehiaketa bidezko lekualdatzaeren bitartez betetzeko ondorengo lanpostuak:

- Lanpostua: Gerokultorea (14 plaza).
- Araubide juridikoa: Lan-kontratudun finkoa.
- Lanaldia: Osoa edota partziala (%75).
- Destinoa: Andra Mari Zahar Etxea.

-Beharrezko titulazioa: Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikaria, Arreta soziosanitarioko teknikaria, Mendekotasuna duten pertsonen arreta egiteko teknikaria, Klinikako teknikari laguntzailea, Erizaintzako teknikari laguntzailea, Gizarte erakundeetan mendekotasuna duten pertsonen arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria, Etxean arreta soziosanitarioa emateko profesionaltasun ziurtagiria edo titulu baliokideak.

- Nahitaezko hizkuntza: Euskara: B2 ahozkoa-B1 idatzizkoa.

- 2.) Onestea lekualdatze-lehiaketaren oinarriak eta eranskinak.



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRYOZ ARIZTEGUI
2024/02/08



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AAD3 W7M2 N9QX 2KQM

Resolución Nº 91 de 08/02/2024 "Andra Mari Zahar Etxea- gerokultoreen lekualdatzea." - SEGRA 19012

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2024/02/08



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus
NIF: P3115200B

IDAZKARITZA / SECRETARIA

3.)Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udalaren atarian argitaratzeko agindua ematea.



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko idazkaria / Secretaria del Ayuntamiento de Lesaka
MARIA JOSE LARRYOZ ARIZTEGUI
2024/02/08



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AAD3 W7M2 N9QX 2KQM

Resolución Nº 91 de 08/02/2024 "Andra Mari Zahar Etxea- gerokultoreen lekualdatzea." - SEGRA 19012

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 2tik 2 orrialdea